

Xabier Mendiguren Bereziartu

«Gaurko erritmoekin euskararen normalizazioa izugarri berandutuko da»

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak hamar urte bete berri ditu joan den abenduan. Ordutik Kontseiluaren idazkari nagusia da Xabier Mendiguren (1945) ezkie-itsasoarra (Gipuzkoa). Urte lanpetua eta berezia izango du Mendigurenek 2008a, datozen hamar urteotarako Kontseiluaren helburuak finkatu beharko dituztelako.

ONINTZA IRURETA

Argazkiak: Junkal Amores



Lelo berria aukeratu duzue, “Bai euskarari”ren ordean “Euskaraz bai”. Azaldu iezaguzu batetik besterako aldaketak zer esan nahi duen eta zergatik den, zuek esan bezala, “ziklo berri baten hasiera”.

“Bai euskarari” leloak asko eman digu, hamar urte hauetan etengabe erabili dugu maila guztietan. Hasierako kanpaina “Bai euskarari” izan zen, ondoren hainbat gauza egin ziren lelo horrekin. Egia esan gure aurretik sortutako leloa da, gu hasi baino hogeita urte lehenago sortutakoa. Garbi daukagu oraindik ere erabiliko dugula. “Bai euskarari”k adierazten du euskararekiko atxikimendua, aldekatasuna... Hori behar-beharrezkoa du euskararak, gutxi gara eta gure gizarteak babestea, bultzatzea, beharrezkoa du.

Hala eta guztiz ere, hamar urte pasa eta egin dugun lanaren ondoren, gero eta garbiago ikusten dugu euskararak aurrera egingo badu zerbait gehiago behar duela, atxikimenduaz eta aldekatasunaz gainera, batez ere euskararak behar duena da ikasia eta erabilia izatea. Bi helburu horiek ezinbestekoak ditu. Bata beharrezkoa da baina bestea ezinbestekoa da. Bi lelo horiek oraindik denbora batean teila-katuta erabiliko ditugu.

Lelo berria aurkeztutakoan aipatu zenuen gaur arteko erritmoekin ez dela helbururik lortuko.

Hori Reclus izeneko eredu baten ondorioetatik atera dugu, ez da Kontseiluak asmatu duen zerbait. Reclus eredu orain dela hamar urte-edo egindakoa da. Horren arabera kalkulatu da, momentu horretan zeuden parametroak 50 urtera proiektatuz gero zein aldaketa gertatuko liritekeen Euskal Herrian. Hor ateratzen ziren ondorioak nabarmen oso kezagarriak ziren. Ikusten zen EAEn erdiak euskaldunak izatera ez zirela iritsiko edo inguru horretan ibiliko zela, Nafarroan doidoi utsiko zitzaioela, eta Iparraldean behera egingo zuela. Beraz, kontua da gaur gaurkoz egiten duguna kontuan hartu eta 50 urtera proiektatzea. Euskararen egoerari ez diogu buelta ematen, egiten duguna da iraun eta zenbait tokitan galdu.

Gaurko erritmoekin euskararen normalizazioa izugarri berandutuko litzateke eta zalantza handiak ditugu hainbeste urte pasa eta gero normali-

zazio hori lortuko litzatekeenik. Gerta baitaiteke epe batzuetan ez badira helburu batzuek lortzen atzerako pausoak ere ematea.

Gauza batzuetan aurrera egin da, kontzientzia mailan hobeto gaude, hizkuntza eskubideen kontzientzia handiagoa da, alor batzuetan pausoak eman ditugu baina oraindik, argi eta garbi esan behar da, defizit nabariak dauzkagu.

Unescok lau urtez behin egiten duen atlas linguistikoan esaten duena ere hor dago, azken batean euskara arriskuko hizkuntza dela eta Iparraldeko euskarari dagokionez, arrisku handikoa. Gauza horiek esan dituztenek esandakoak dira, ez dira Kontseiluak asmatutakoak. Guk esan ditugun gauzarik kezagarrienak horiek dira, eta ez gehiago. Guk ez dugu mezu apokaliptikorik transmititzen.

“Hizkuntza normalizazioak epe arrazoizkoan lortu behar ditu helburuak; ‘ehun urte barru dena euskalduna izango da’ horrek ez digu balio”

Duela hamar urte sortu zen Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua. Zein izan zen orduko helburua? Zein funtzio beteko zituen Kontseilua?

Orain dela hamar-hamabi urte esan dezakegu sortu zela Kontseilua. Euskararen Unibertsoa izeneko mugimendua izan zen bi urtez lan egin zuena, eta gogoeta luze eta sakonaren ondorioz Donostian jardunaldiak antolatuta ziren. Han erabaki zen zerbait iraunkorra sortzea eta iraunkorki lan egingo zuen erakunde hori da Kontseilua. Une hartan 50 elkarte bildu ziren guztien helburuak batuta, hau da, euskararen normalizazioan eragitea. Ikusten zen Euskararen Legea sortu eta pasatzen ari ziren urteak pasatzen ari baziren ere, euskararak ez zeramala espero zen abiadura. Espektatibak ez ziren betetzen ari, euskalgintzaren gehiengo horrentzat behintzat.

Hor bildu ziren elkarteek, iritzi desberdinetako elkarteek, nahikoa

lan izaten zuten beren helburuak betetzen, horregatik Kontseiluaren baitan delegatu zuten normalizazioaren aldeko lan orokor indartsu hori egitea.

Helburu berari eusten al dio Kontseiluak orain?

Esan dezakegu helburu hark bizirik irauten duela. Bitartean zer lortu den? Gauza batzuetan aurrerapausoak eman dira, esate baterako, Bai Euskarari Ziurtagiria sortu zen nolabait lanaren munduan euskara eragiteko. Une honetan 1.500 ziurtagiri daude Euskal Herrian banatuta. Horren parean jarriko nuke Hizkuntza Eskubideen Behatokia. Behatokiak hizkuntza eskubideak bermatzea bilatu nahi du eta horretan ari da azken zazpi urte hauetan. Nik uste dut bi tresna horiek direla euskararen kontzientzia pizten eta bultzatzen lan egiten duten elementu nagusiak. Hizkuntza eskubideen aldeko borroka luzea da, bistan dago. Emaitzak ez dira berehala ikusten.

Bi tresna horietaz gain urtero hainbat azterketa egiten dituzue, hala nola, museoetakoa, ardoen etiketatzea, udaletakoa... Zein da ekintza horien helburua?

Azterketa berezituaren asmoa da euskararen erabilera dauden defizitak agerian jartzea eta pixkanaka bide egokiagoak erabil ditzaten proposamenak egitea. Agerian uzten dugu zeintzuk jokatzeko duten egoki, hutsuneak dituztenak parean jartzen ditugu eta nolabait lortu nahi duguna da hutsuneak dituzten horiengan eragitea esanez, “beno bide egokia gure ustez hau da”. Esate baterako, ardoaren kasuan, Irulegiko ardoaren eredu jarri dugu. Ardandegi horrek aurkeztu du bere produktua modu egokienean euskaldunen ikuspegitik, hau da, hizkuntza eskubidea aintzartat hartuta. Beste ardandegiak gonbidatzen ditugu hori egitera. Azken finean, eragin mediatikoa duten ekintzak dira honelakoak. Zenbait kasutan lortu dira emaitzak. Bezeroak izan dezakeen satisfazioa kontuan hartu behar du edozein ekoizle eta saiatzeko gara erakusten agian badaukatela hobetu beharreko alderdi bat.



Euskararen Nafar Institutuko zuzendari Xabier Azanzari buruz: "Ikusten dugu, borondate onekoa eta ezagutza daukan pertsona, baina ingurune oso mugatua".

Zer egin nahi dugun badakigu, kontua da zer gerta daitekeen bitarte horretan.

"Euskaraz bai" horrekin euskararen erabilera indartzea nahi dugu, eta erabiltzeko ikasi egin behar da. Hezkuntza Sailarekin lankidetzan ari gara hori posible izan dadin. Ezinbestekoa da lankidetzara hori.

Etorकिनen alorrean ere lankidetzan ari gara Hezkuntza Sailarekin. Ez ditugu etorkin kopuru izugarriak, baina gero eta handiagoak dira eta agian, Kataluniako egoerara iritsi aurretik, gauzak hobeto bidera ditzakegu haien esperientziarekin.

Bestalde, saiatuko gara ildo iraunkorra mantentzen munduko hizkuntza gutxituekin.

Euskararen aldeko ahaleginean indar guztiak bildu eta baliatu behar direla esaten da. Ez dakit hala den abian jarritako hainbat zerbitzu ikusita, hala nola, Behatokia / Elebide, Ziurtagiria / Bikain ziurtagiria...

Kasu bakoitza aztertu beharko genuke. Orain dela urte mordoska hasi ginen lanean bai Ziurtagiriarekin eta baita Behatokiarekin ere. Orduan ez zegoen horrelakorik eta premia hori ikusi genuen. Bikoizketa gauza bera baldin bada ez da ona, indarrak nolabait sakanatu egiten dira. Ziurtagiri berria sortzeko zurrumurrua atera zenean garbi esan genuen gure ustez bakarria behar zela. Esan bakarrik ez, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari gure proposamena egin genion eta Baztarririk [Patxi Baztarririka Hizkuntza Politikarako sailburuordeak] erantzun zigun bi gauza desberdin zirela haiek egitera zihoazena eta gu egiten ari ginena, ez zuela ikusten uztarketa egin zitekeenik. Konstatatu arte gauza bera dela hori sinestu behar dugu, nahiz eta zalantza handiak ditugun gauza desberdinak izateaz. Guk nahiko genuke bakarria egotea.

Hizkuntza eskubideen kontuarekin antzeko zerbait gertatu da. Ez daukagu interes berezirik geu bakarrik aritzeko alor honetan, baina aurretik lanean ari ginen. Proposamena egin zitzaion elkarrekin aritzeko, baina ikusten da ez dutela interesik. Esperientzia horiek ez dira onak izan, badakigu zer gertatu zen *Egunkariarekin*, HABErekin... Iruditzen zaigu ez gaudela gu

Azterketa berezituak egiten segiko al duzue?

Eguneroko bizitzan eragina duten horrelako gauzekin segituko dugu. Euskararen erabilera ez baita soilik hitz egitea, paisaia osoa inguratzea ere bai; botiletan euskara egotea, eskuko telefonoetan euskara erabili eta ikusi ahal izatea, museoetan ere bai... Kontua aukerak sortzea da, goizetik gaue-ra toki guztietan.

66 udalerritako hizkuntza politikak neurtu dituzue berriki.

Lan horri heltzea erabaki dugu, izan ere, udaleko erabaki askok eta askok eragin zuzena dute herritarren eguneroko hizkuntza erabileran. 66 udalerririk bi milioi eta gehiago bizilagunen bizitza kudeatzen dute. Neurtutako hizkuntza politiken ondorioak nahiko kezagarriak izan dira. Politika ideala ia inon ez da egiten eta onena egiten den tokietan, hurbiltzen dira politika ideal

xamarrera, baina badago zer hobetu. Gainerako guztietan hortik behera, eta leku batzuetan oso egoera eskasa. Guk nahiko genukeena da lau urtez behin neurketak errepikatzea eta ikustea zein aldaketa egon den. 66 udalerririk horiekin jarraituko dugu eta bitartekoak baldin baditugu neurketa beste herri batzuetara hedatuko dugu.

Hemendik hamar urtera nola ikusten duzu Kontseilua?

"Agintariak beti kokatuko dira asko eskatzen dutenen eta ezer eskatzen ez dutenen artean. Kontua ez da asko ala gutxi egiten den, baizik eta egin behar dena egiten den"

«Hizkuntza salbatzeko jendearen nahia elikatu egin behar da»

Davyth Crystal hizkuntzalari galestar famatuak hizkuntza gutxituak salbatzeko hiru gako aipatu ohi ditu: jendeak hizkuntza salbatu nahi izatea, aginte erakundeak gaiaz arduratzea eta dirua. Ados al zara horrekin?

Nahia ezinbestekoa da. Baina horri buruz oharra egin nahi dut. Nahiak izan daitezke nahikundeak, erdi nahiak edo nahi gogotsu biziak. Nahia oso modulagarria da, gaur egun nahiak zentzu batekoak izatetik bestekoak izatera erraz aldatzen dira. Gaur egun nahiak eta beste gauza asko manipulatu egiten dira. Manipulatu diren bezala, baita ere, indartu, bultzatu ere egiten dira. Euskal Herrian, oro har azken urte askotan, euskararen aldeko atxikimendua nabarmena izan da, nahia badago, baina nahi hori ez da behin betiko. Elikatu egin behar da eta hor defizit nabarmena daukagu. Oreka lortu behar dugu eta oso zaila daukagu, hizkuntza komunitate txikia baikara. Nahi hori elikatzeke prestigiozko

eredu indartsuak eman behar ditugu –komunikabideek hor zeregin izugarria dute–, euskarazko produktuak ugaltu behar ditugu –eskuko telefonoak, playstationak...–. Ahalegin serioak egin behar dira horiek indartzeko.

Bigarren gakoari buruz zer diozu?

Agintariak nahiak bete behar dituzte, bistan dago. Esango dizute egiten dela, beti gero eta gehiago egiten dela. Beraiek beti kokatuko dira asko eskatzen dutenen eta ezer eskatzen ez dutenen artean. Kontua ez da asko ala gutxi egiten den, baizik eta egin behar dena egiten den. Gaixo bati ezarrita ere esan liteke: kontua ez da gero eta sendagai gehiago ematea, kontua da ea hori dena eginda biziko den ala hilko den. Behar dena egin behar da, ez nahiko genukeena bakarrik edo batzuek uzten digutena edo guri dagokiguna...

Iritsi nahi badugu leku batera bitartekoak jarri behar dira, bitartekoak jartzen ez baldin baditu-

gu ez gara iritsiko. Hizkuntza normalizazioak epe arrazoizkoan lortu behar ditu helburuak; “ehun urte berru dena euskalduna izango da” horrek ez digu balio.

Crystalek jendeari adierazteko hizkuntzak zergatik diren garrantzitsu bi argudio aipatu ohi ditu: argudio intelektualak eta emoziozko argudioak. Hiztunen emozioetan erreparatzea modan jarri da. Zuk zer iritzi duzu?

Sinesten dut horretan. Hizkuntzek badute horrekin zerikusi handia. Benetan pertsonengana iristeko gaitasun hori izatea ezinbestekoa da. Argudio intelektual-arrazional soilek ez dute behar adinako indarrik liberatzen pertsonaren baitan gauzak egiteko. Momentu batzuetan erabiltzen ditugu, eta askotan gehiegi ere bai. Alderdi emozional hori euskararen munduan gero eta gehiago zaindu beharko genuke. Oro har gizartea ez du arrazoiak mugitzen, beste indar batzuek baizik. Hortik asko daukagu ikasteko.

horrela ibiltzeko egoeran. Adostasuna lortu behar da, indarrak gauza bererako bikoizten ibili gabe. Bistan dago, elkarlanari buruzko iritzia dago jokoan, bakoitzak zer ulertzen duen elkarlanaz. Elkarlana pentsatzen baldin bada soilik dela batzuek diseinatzen duten politika besterik gabe onartu eta praktikara eramatea, hori guretzat ez da elkarlana. Parte interesatua izanik, guk ere badugu zeresana nahiz eta diseinatzea agintariari dagokien. Elkarlana diru batzuk banatzea baino zerbait gehiago da. Egon behar du gune bat non batzuen eta besteen eginbeharrek topo egin dezaketen, izaera errespetatuz eta elkarrekin indarrak metatuz. Horretarako jarrera irekia behar da. Ziur pentsatzen dugu lankidetzaren errealia posible dela. Une honetan ez gara iritsi horretara, borondatea badaukagu eta lan egin beharko dugu.

Euskararen Nafar Institutua sortu da eta Xabier Azanza izendatu dute zuzendari. Nondik hasi beharko luke Azanzak?

“Argudio intelektual-arrazional soilek ez dute behar adinako indarrik liberatzen pertsonaren baitan gauzak egiteko. Momentu batzuetan erabiltzen ditugu, eta askotan gehiegi ere bai”

Atzo [urtarrilak 11] idatzi nion lehenengo zorion e-maila. Zuzendari izango zela erabaki baino lehenago, berarekin konpromisoa neukan hartua 2008an Nafarroako ikastolei buruz hitz egiteko. Horra non, ustekabea, zuzendari izatea gertatu zaion. Pentsatzen dut Nafarroako Ikastolen lehendakaria izan denak, gutxienez, Nafarroaren eta oro har

euskararen egoeraren berri ondo xamar dakien pertsona dela, eta beraz, ezagutza aitortzen diot. Baita ere, euskaltzaletzat daukat. Aldeko gauzak ditu horiek. Beste kontu bat da gaur gaurkoz Nafarroan dagoen legearekin eta Nafarroako hizkuntza politikak esleituak dituen bitartekoekin ezin litekeela nahiko genukeen hizkuntza politika egin. Hori behin eta berriz esan dugu. Beraz, ikusten dugu, printzipioz, borondate onekoa eta ezagutza daukan pertsona, baina ingurune oso mugatua. Nahiko genuke patxadaz berarekin hitz egin, eta iruditzen zaigu hartu-eman erosoan izan dezakegula, Nafarroako Gobernuarekin orain arte izan ez duguna. Gutxienez bada egoera aldatuta eta uste dut iraganean gertatu diren zenbait gauza ez direla errepikatuko. Geroak esango du noraino iritsiko garen. ■